

Izagaldeako Euskara Zerbitzurako Logo lehiaketaren oinarriak

Izagaldea Euskara Zerbitzuak sei udalerrri hartzen ditu bere eginbeharrean: Lizoainibar-Arriasoiti, Urrotz-Hiria, Izagaondoa, Urraulbeiti, Longida eta Elo. Haien artean, Izaga mendia da elementu komuna eta adierazgarri bat, hortik izena.

Helburua: Zerbitzurako irudi bat sortzea, logoa. Testua: **Izagaldea Euskara Zerbitzua**

Parte hartzeko. Lehiaketan 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake. Parte hartu nahi dutenek nahi beste proposamen aurkeztu ditzakete. Proposamen bakoitzak bere izengoitia eraman beharko du.

Logoaren diseinua. Logotipoaren diseinuak erabilera anitzak emateko modukoa izan beharko du; hainbat formatu edota espaziotan erabiltzeko gaitasuna ere izan beharko du. Logotipoaren diseinuaren eta koloreen azalpena ematea kontuan hartuko dute. Logotipoaren diseinuak hobe da euskarri digitalean aurkeztea, (Koronabirusa dela eta papera saihesten ari da).

Saria. Sari bakarra: **200 €.**

Epaimahaia. Alkateek izendatutako epaimahaiak hautatuko du ideia lehiaketako diseinu irabazlea zein izango den. Udaleko bakoitzeko alkateek izendatuko dute epaimahi-kidea, hala nahi badute. Epaimahaiak hala erabakiko balu, lehiaketako saria eman gabe utzi dezake.

Lehiaketara nola aurkeztu proposamenak.

- Diseinu bakoitza atzekaldean identifikatzeko erabiliko den goitzenarekin sinatu beharko da.
- Euskarri digitalean edo paperean aurkeztu behar da eta horrekin batera bi gutunazal itxi aurkeztu behar dira, edo bi artxibo email berean.
- Bi gutunazal itxiak: (A gutunazala edo artxiboa) egilearen datuak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoaren helbidea, faxa edota identifikatzeko beste edozein datu. Bigarrena (B gutunazala edo artxiboa) proposatutako diseinuaren azalpenak, aukeran, eta bertan, logotipoa hainbat espazio eta formatutara egokituta. Bi gutunazalak (A eta B hizkiz berezituta) kanpoaldean honako idatziarekin identifikatu behar dira: "Izagaldea Euskara Zerbitzua irudikatzen duen logo lehiaketa". Gainera, lehiakidearen goitizena jarri behar da.

Proposamenak noizko eta non aurkeztu. Logotipoaren diseinu proposamenak ekainaren 16a arte aurkez daitezke, Urrotz-Hiriko udaletxean, honako ordutegian: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:30etara bitartean. Galderak euskara.izagaldea@gmail.com

Jabetza intelektuala eta industria eskubideak. Epaimahaikideek aukeratutako logotipoaren diseinu saridunaren egileak Lizoainibar-Arriasoitiko Udalarari utziko dizkio eskusiboki jabetza intelektuala.